

ELIA-RA SARBIDEA IZATEKO ETA ERABILTZEKO BALDINTZA OROKORRAK (PARTIKULARRENTZAT)

(Indarrean 2025/02/01etik)

1. BALDINTZA OROKORREN EREMUA, XEDEA ETA IRISMENA

Xedapen hauek (aurrerantzean, “**BALDINTZA OROKORRAK**”) arautzen dituzte *Elia* tresna teknologikoaren (aurrerantzean, “**ELIA ITZULTZAILEA**”) sarbidea eta erabilera zuzenduko dituzten baldintzak. Tresna teknologiko hori ELHUYAR FUNDAZIOAK (Espainiako legediaren arabera legez eratutako entitatea da, egoitza Usurbilen du (Gipuzkoa), Zelai Haundi 3, Osinalde Industrialdea helbidean; Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatua dago, F134 zenbakiarekin, eta IFZ G-20780896 du) jartzen du Interneteko erabiltzaileen eskura (aurrerantzean, “**ERABILTZAILEAK**”) www.elia.eus domeinuaren eta gailu mugikorretarako *Elia* aplikazioaren bidez.

Aurrekoari kalterik egin gabe, ELIA ITZULTZAILEAN jasotzen diren funtzionaltasun eta zerbitzu batzuetarako sarbideak eta haien erabilerak baldintza bereziak izan ditzakete (aurrerantzean, “**BALDINTZA BEREZIAK**”). Kasuaren arabera, BALDINTZA BEREZIEK BALDINTZA OROKORRAK osatuko edo aldatuko dituzte, eta, kontraesanen bat baldin badago, haien gainetik egongo dira. Horren ondorioz, funtzionaltasun edo zerbitzu horiek erabili aurretik, haiek arautzen dituzten BALDINTZA BEREZIAK onartu beharko ditu bezeroak, onartzeko sistema egokiaren bidez.

ELIA ITZULTZAILERA sarbidea izatean eta hura erabiltzean, edo, hala badagokio, erregistratzeko izapideak egitean, ERABILTZAILEAK berariaz eta erreserbarik gabe onartzen ditu BALDINTZA OROKORRAK; onarpen horrek idatziz eta sinadurarekin egiten den edozein kontraturen pareko baliozkotasuna eta eraginkortasuna ditu ERABILTZAILEAK ez baditu osorik onartzen BALDINTZA OROKORRAK, ez du baimenik izango ELIA ITZULTZAILEA erabiltzeko.

ELHUYARREK ahalmena du, edozein unetan eta aurrez jakinarazteko beharrik gabe, BALDINTZA OROKORRETAN, eta, hala badagokio, dagozkien BALDINTZA BEREZIETAN, edozein aldaketa eta eguneraketa egiteko, baldintza horiek legegintzako nobedadeetara eta nobedade administratibo eta jurisprudentzialetara egokitzeke, une oro kontuan izanda ERABILTZAILEEN eskubide eta interesak; aldaketa horiek ez diote eragin beharko ERABILTZAILEEK une horretara arte ELIA ITZULTZAILEARI eman dioten erabilerari.

2. DEFINIZIOAK

BALDINTZA OROKORREN ondorioetarako, kontzeptu hauek jarraian adierazten den esanahia izango dute:

- “**BALDINTZA OROKORRAK**”: Xedapen hauek eta berauen eranskinak.

- **“BALDINTZA BEREZIAK”**: ELIA ITZULTZAILEAN jasotzen diren funtzionaltasun eta zerbitzu batzuen atzipenari eta erabilerari buruzko edozein baldintza berezi, BALDINTZA OROKORRAK osatzeko ezartzen direnak.
- **“KONTRATUA”**: BALDINTZA OROKORRAK eta BALDINTZA PARTIKULARRAK batera, halakorik dagoenean.
- **“ELHUYAR”**: ELHUYAR FUNDAZIOA.
- **“ERABILTZAILEA/K”**: Beren esparru partikularrean, jarduera profesionaletik kanpo eta harekin zerikusirik izan gabe ELIA ITZULTZAILERA sarbidea izaten eta hura erabiltzen duten pertsona fisikoak.
- **“ALDERDIA/K”**: ELHUYAR eta ERABILTZAILEA batera, edo haietako bakoitza banaka, kasuaren arabera.
- **“ELIA ITZULTZAILEA”**: Lineako itzulpen-tresna teknologikoa, ELHUYARREK ERABILTZAILEEN eskura jartzen duena.
- **“WEB-SARBIDEA”**: ELIA itzultzailera sartzeko web-ataria, www.elia.eus URL helbide elektronikoan edo etorkizunean hura ordeztzen duen beste edozeinetan eskuragarri dagoena.
- **“ELIA APLIKAZIOA”**: Gailu mugikorretarako aplikazioa, ELIA itzultzailera gailu horietatik sarbidea izateko eta hura erabiltzeko aukera ematen duena. Googleren eta Appleren *app* marketetan daude eskuragai, deskargatzeko.
- **“SOFTWAREA”**: *Cloud computing* sistema batean ostatatuta dauden eta ELIA ITZULTZAILEA osatzen duten programa informatikoen eta beste aktibo eta zerbitzu teknologiko batzuen multzoa, barnean daudela WEB-SARBIDEA eta ELIA APLIKAZIOA.
- **“OINARRIZKO MODALITATEA”**: ELIA ITZULTZAILEAREN erabilera pertsonaleko modalitatea, zeinaren edukia, irismena eta ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (aurrerago definitzen diren moduan) WEB-SARBIDE PUNTUAN identifikatzen baitira.
- **“MODALITATE AURRERATUA”**: ELIA ITZULTZAILEAREN erabilera pertsonaleko modalitatea, zeinaren edukia, irismena eta ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (aurrerago definitzen diren moduan) WEB-SARBIDE PUNTUAN identifikatzen baitira.
- **“MODALITATE EZ-PROFESIONALA/K”**: OINARRIZKO MODALITATEA eta MODALITATE AURRERATUA batera, edo haietako bakoitza banaka, kasuaren arabera.
- **“HIZKUNTZA ERABILGARRIAK”**: ELIA ITZULTZAILEAK zer hizkuntzatatik itzultzen duen; WEB-SARBIDE PUNTUAN identifikatzen dira une oro.
- **“HITZEN MUGAK”**: MODALITATE EZ-PROFESIONAL bakoitzarekin ERABILTZAILEAREN eskaera bakoitzean gehienez itzuli ahalko den hitz-kopurua.
- **“ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK”**: MODALITATE EZ-PROFESIONAL bakoitzerako definitzen diren espezifikazio eta funtzionaltasunak, barnean daudela

HIZKUNTZA ERABILGARRIAK, HITZEN MUGAK eta gainerako funtzionaltasun guztiak; WEB-SARBIDE PUNTUAN ikus daitezke.

- **“EGIAZTAGIRIA”**: ERABILTZAILEARI ELIA ITZULTZAILERA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko esleitzen zaizkion egiaztagirak, erabiltzaile-identifikadoreak edo pasahitzak.
- **“ERABILERA-BAIMENA”**: KONTRATUA gauzatzearen ondorioz ELHUYARREK ERABILTZAILEARI ELIA ITZULTZAILERA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko ematen dion eskubidea.
- **“ERABILTZAILEAREN EDUKIA”**: ERABILTZAILEAK, itzultzeko, ELIA ITZULTZAILERA bidaltzen dituen edo han kargatzen dituen testu, dokumentu edo edukiak.
- **“PROZESATUTAKO EDUKIA”**: ELIA ITZULTZAILEAK, ERABILTZAILEAREN EDUKIAN oinarrituta eta haren itzulpen-eskaeraren erantzun gisa, modu automatizatuan sortzen dituen testu, dokumentu edo edukiak.
- **“EZINBESTEKO KASUAK”**: Ohiz kanpoko, aurretik jakin ezineko edo saihestu ezineko edozein egoera edo gertaera, ELHUYARREN borondatetik kanpo dagoena, hala nola mota guztietako grebak, suteak, uholdeak, indar eragilea falta izatea, lehengaien falta edo eskasia, matxurak edo ezbeharrak ELHUYARREN edo hari zerbitzuak eskaintzen dizkieten hirugarrenen instalazioetan, COVID-19ak eragindako alerta sanitariotik edo etorkizunean izan daitezkeen antzekoetatik eratorritako egoerak eta KONTRATUA gauzatu ondoren izan daitekeen bestelako edozein egoera, baldin eta ELHUYARREN betebeharrak betetzea aldi baterako edo behin betiko ezinezkoa edo garestiegia izatea eragiten badute.
- **“INFORMAZIO KONFIDENTZIALA”**: ALDERDIETAKOREN baten titulartasuneko informazio edo jakintza oro —barnean direla teknologikoa, zientifikoa, komertziala, antolakuntzari dagokiona, finantzarioa edo beste motaren batekoa (*know-how*)—, beste ALDERDIAK eskura duena ERABILTZAILEAK ELIA ITZULTZAILEA erabiltzen duen artean. Besteak beste, eta adibide gisa, hauek barne hartzen dira: negozio-planekin, finantza-aurreikuspenekin, salmenta-txostenekin, oro har datu ez-pertsonalekin, ELIA ITZULTZAILEAREKIN berarekin oro har eta SOFTWAREAREKIN, patenteekin, markekin, baliagarritasun-modeloekin eta jabetza intelektualeko edo industrialeko bestelako eskubideekin edo haien eskaerekin (erregistratuta daudenak eta erregistratu gabekoak), asmakizunekin, prozesuekin (grafikoak eta bestelakoak), eskuliburuekin, pasahitz informatikoekin, iturburu-kodeekin, prozesu edo diseinuekin (grafikoak eta bestelakoak), haien erabilerarekin edo ustiapenarekin erlazionatutako informazioa, betiere idatziz jasotzen bada konfidentzialak edo eskusiboak direla edo bitarteko pertsona batek halakotzat jo baditzake, egoerak kontuan hartuta.
- **“TITULARRA”**: INFORMAZIO KONFIDENTZIALAREN titularra den ALDERDIA.
- **“JASOTZAILEA”**: INFORMAZIO KONFIDENTZIALA jasotzen duen ALDERDIA.

3. ELIA ITZULTZAILEAREN DESKRIBAPEN OROKORRA ETA EZAUGARRIAK

3.1. ELIA ITZULTZAILEAREN izaera, edukia eta funtzionaltasunak

ELIA ITZULTZAILEA soluzio teknologiko modular bat da, ELHUYARREK diseinatu eta garatu, eta hizkuntza anitzeko itzultzaile automatiko batek osatzen du. Adimen artifizialeko teknologien erabileran oinarritzen da, eta WEB-SARBIDE PUNTUTIK edo ELIA APLIKAZIOTIK atzitzen da.

Testuinguru horretan, ELIA ITZULTZAILEAK barne hartzen du biltegitartzeko tokia, zenbaketa-gaitasuna eta SOFTWAREA, zeinak “*Software as a Service*” edo “*SaaS*” gisa eskaintzen baitzaio ERABILTZAILEARI.

MODALITATE EZ-PROFESIONAL bakoitzak bere ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK izango ditu.

Nolanahi ere, dagozkion xedeetarako, jasotzen da ELIA ITZULTZAILEAREN bidez egindako itzulpenak erabat automatizatuak eta gizakien esku-hartzerik gabe eginak direla, eta, beraz, inola ere ez da joko ELHUYARREK, haren langileek edo kolaboratzaileek berrikusi eta baliozkotu dituztenik.

3.2. ERABILERA-BAIMENA

BALDINTZA OROKORRAK eta, dagokionean, BALDINTZA PARTIKULARRAK onartuta ALDERDIEN artean KONTRATUA gauzatzeak ERABILTZAILEARI ERABILERA-BAIMEN bat ematen dio, zeinak ELIA ITZULTZAILERA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko eskubidea ematen baitio, ERABILTZAILEAK hautatutako MODALITATE EZ-PROFESIONAL jakinerako ezarritako ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOETARA mugatzen dena eta BALDINTZA OROKORRETAN ezartzen diren edukia eta irismena dituen.

ERABILERA-BAIMEN hori ez-esklusibo eta besterenezin gisa eta iraupen mugagabearekin konfiguratzeko da, eta mundu guztira zabaltzen da.

3.3. Eguneratzeak

ERABILERA-BAIMENA indarrean dagoen artean, ELHUYARREK ERABILTZAILEAREN eskura jarriko ditu MODALITATE EZ-PROFESIONAL bakoitzean bezeroen eskura jartzen diren SOFTWAREAREN eta ELIA ITZULTZAILEAREN eguneratzeak eta hobekuntzak, ERABILTZAILEARENTZAT inolako kosturik izan gabe.

4. ELIA ITZULTZAILERA SARBIDEA IZATEA ETA HURA ERABILTzea

4.1. Eskakizun teknikoak

ERABILTZAILEAREN ardura izango da ELIA ITZULTZAILERA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko behar dituen ekipamendu informatikoez, gailu mugikorrez eta Internetarako konexioez hornitzea, eta ELHUYARREK ez du izango inolako konpromisorik elementu horien

Edozelan ere, beharrezkoa izango da ERABILTZAILEAK eguneratua izatea bere web-nabigatzailea edo gailu mugikorrak, ELIA ITZULTZAILEAREN funtzionamendu egokia bermatzeko.

4.2. ERABILTZAILEEN sarbiderako erregistrorako baldintzak

4.2.1. Sarbiderako baldintzak

ELIA ITZULTZAILERA sarbidea izatea eta hura erabiltzea, MODALITATE EZ-PROFESIONALETAN, 18 urte edo gehiago dituzten pertsona fisikoetara mugatzen da. Baldin eta edozein adingabek ELIA ITZULTZAILEA erabili nahi badu, gurasoen/tutoreen adostasuna beharko du.

ELIA ITZULTZAILERA sartzean edo hartan erregistratzeko izapideak egitean, ERABILTZAILEAK ELHUYARRI bermatzen dio (i) adinez nagusia, adingabe emantzipatua edo gurasoen/tutoreen adostasunarekin jarduten duen adingabea dela; eta (ii) ELHUYARRI bere buruaz ematen dion informazio guztia egiazkoa dela.

4.2.2. ERABILTZAILEAREN erregistroa eta SARTZEKO BAIMENAK

OINARRIZKO MODALITATERA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko, ez da behar ERABILTZAILEA erregistratzerik. MODALITATE AURRERATURA sarbidea izateko eta hura erabiltzeko, aldiz, beharrezkoa da BEZEROAREN erregistroa egitea ELHUYARREK horretarako ezartzen duen sistemaren bidez.

Azken kasu horretan, ERABILTZAILEAK arduraz erabili behar ditu esleitzen zaizkion SARTZEKO BAIMENAK, eta bere ardura izango da ongi zaintzea eta konfidentzialtasuna; haren erabilera hirugarrenei ez lagatzeko (aldi baterako nahiz behin betiko) eta hirugarrenek sarbidea izan dezaten saihesteko konpromisoa hartu beharko du.

Baldin eta SARTZEKO BAIMENAK lapurtzen badituzte, galtzen badira edo baimenik gabe sartzen bada norbait, ERABILTZAILEAREN ardura izango da berehala egoera horren berri ematea ELHUYARRI, baimen horiek bertan behera utz ditzan. ELHUYAR inola ere ez da izango ERABILTZAILEAREN SARTZEKO BAIMENAK erabiltzen dituzten hirugarren baimenik gabeek egindako ekintzen erantzule, lapurretaren, galtzearen edo baimenik gabeko sarbidearen jakinarazpena egiten ez den artean.

4.3. ELIA ITZULTZAILEAREN erabilera

4.3.1. Funtzionaltasun eta erabilera erabilgarriak

ELIA ITZULTZAILEAREN erabilera eta funtzionaltasunak, MODALITATE EZ-PROFESIONAL bakoitzean, ondorio horietarako ezarritako ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOETARA mugatuko dira, eta barnean hartzen dira HIZKUNTZA ERABILGARRIAK, HITZEN MUGAK, dokumentuak itzultzeko funtzionaltasuna, estatistiken funtzionaltasunak eta gaur egungo edo etorkizuneko beste edozein funtzionaltasun.

4.3.2. ERABILTZAILEAREN EDUKIEN eta PROZESATUTAKO EDUKIEN kudeaketa

Oro har, ELHUYAREK ERABILTZAILEAREN EDUKIAK eta PROZESATUTAKO EDUKIAK bere azpiegituran gordeko ditu ELIA ITZULTZAILEAREN erabilera eta funtzionamendu egokia bermatzeko teknikoki beharrezkoa den heinean.

Esandakoa gorabehera, salbuespen gisa eta ERABILTZAILEAK nahita erabiltzen duenean “Baloratu itzulpenak” funtzioa, ELHUYAREK gaitasuna izango du ERABILTZAILEAREN EDUKIAK eta PROZESATUTAKO EDUKIAK gordetzeko funtzio horrek egoki funtzionatzeko behar beste denboran eta, ondorioz, konfidentzialtasun-betebeharrari lotuta.

Nolanahi ere, ELHUYAR gaituta egongo da ELIA ITZULTZAILEAREN sarbide- eta erabilera-erregistro berriak sortzeko eta kontserbatzeko bere azpiegitura kudeatzeko eta haren segurtasuna mantentzeko eta estatistika-helburuetarako, eta ERABILTZAILEAK ezingo dio aurka egin jarduketa horri.

4.3.3. Baimendutako erabilerak eta murrizketak

ERABILTZAILEAK, ERABILERA-BAIMENAREN bidez, ELIA ITZULTZAILERA pertsonalki sarbidea izateko eta hura erabiltzeko eskubide besterenezina eskuratzen du, eta hura bere jarduera profesionalean erabiltzeko ahaldunduz du, betiere BALDINTZA OROKORRETAN ezartzen denarekin bat etorriz.

Nolanahi ere, ERABILTZAILEAK uko egin beharko die ekintza hauei:

- Eskaera-kopurua areagotzen duten prozedura automatizatuen bidez sartzea ELIA ITZULTZAILERA sarbidea izatea edo hura erabiltzea, baldin eta prozedura horien bidez ohiko giza portaera gainditzen bada, arazoak eragin baititzake ELIA ITZULTZAILEAREN funtzionamendu egokian;
- ELIA ITZULTZAILEA, SOFTWAREA edo bere eskura jartzen den haiei buruzko dokumentazio oro aldatzea edo haietatik eratorritako produktuak sortzea;
- SOFTWAREA deskonpilatzen, desmuntatzen, alderantzizko ingeniariatza egiten edo SOFTWAREAREN iturburu-kodea deszifratzen saiatzea;
- ELIA ITZULTZAILEAREN edo SOFTWAREAREN erabilera osorik edo partez saltzea edo alokatzea;
- ELIA ITZULTZAILEAN edo haren erabileran duen itxura fisikoan dagoen edo jasotzen den edozein marka erregistratu, logotipo, ohar, legenda, sinbolo edo etiketa kentzea edo aldatzea;
- ELIA ITZULTZAILEA eta/edo SOFTWAREA legez kontrako edozein jardueratarako erabiltzea, barnean sartzen dela hirugarrenen eskubideak urratzen dituen edozein aplikazio garatzea; eta
- ELHUYARRI, ELIA ITZULTZAILEAREN bidez, informazioa edo datuak helaraztea baldin-eta haiek prozesatzea legeen aurkakoa bada.

5. IRAUPENA

ELIA ITZULTZAILEAREN ERABILERA-BAIMENA eta barne hartzen dituen sarbide- eta erabilera-eskubideak iraupen mugagabearekin ezartzen dira.

ERABILTZAILEARI legez dagokion uko egiteko eskubidearen kalterik gabe —KONTRATUA gauzatzen denetik 14 eguneko epean gauzatu ahalko da eskubide hori, eta ez du inolako kosturik izango ERABILTZAILEARENTZAT—, ERABILTZAILEAK edozein unetan eta aldezturik jakinarazi beharrik gabe eskatu ahalko du ELIA ITZULTZAILEAREN erabilera erabat eteteko.

Halaber, ERABILERA-BAIMENA eta, ondorioz, KONTRATUA ere automatikoki eta aldezturik abisatzeko beharrik gabe iraungiko dira, ERABILTZAILEAK BALDINTZA

OROKORRAK urratzen dituenean edo, arrazoiak edozein dela ere, ELHUYARREK ELIA ITZULTZAILEAREKIKO edo SOFTWAREAREKIKO dituen eskubideak iraungitzen direnean.

6. KONDIZIO EKONOMIKOAK

BALDINTZA BEREZIETAN besterik zehazten ez bada, ELIA ITZULTZAILERA sarbidea izatea eta hura erabiltzea, MODALITATE EZ-PROFESIONALEAN, doakoak dira, ERABILTZAILEAK bere hornitzailearekin kontratatua duen telekomunikazio-sarerako konexioaren kostuari dagokionez izan ezik; kostu hori ERABILTZAILEAK ordaindu beharko du.

7. ERABILGARRITASUNA, SEGURTASUNA ETA BERMEA

7.1. ELIA ITZULTZAILEAREN erabilgarritasuna

ELIA ITZULTZAILEA hartara sarbidea izateko eta hura erabiltzeko eskuragarri egongo da WEB-SARBIDEKO PUNTUAREN eta ELIA APLIKAZIOAREN bidez urteko egun guztietan, 24 orduetan.

Hala ere, ez da bermatzen ELIA ITZULTZAILEAREN erabilgarritasuna EZINBESTE-kasuetan edo ELHUYARREN kontrolatik kanpoko kasuetan. Ondorio horietarako, ELHUYARREN “kontrolatik kanpoko” kasutzat jotzen dira hauekin erlazionatutako oro: (i) ERABILTZAILEAREN ekipamendu informatikoak edo gailu mugikorrak; (ii) ERABILTZAILEAK erabiltzen dituen komunikazio-sareak eta interkonexio-elementuak, izan propioak edo ELHUYARREZ bestelako hirugarrenenak; eta (iii) hirugarrenek eskaintzen dituzten zerbitzu teknologikoak (esate baterako, ELHUYARREN hornitzailearekin kontratatutako *cloud computing* biltegiatze-zerbitzuak edo zerbitzariak).

Halaber, ELIA ITZULTZAILERAKO sarbidea aldi baterako eten ahal izango da segurtasun-arrazoiengatik, mantentze-lanetarako edo baliabideak berregituratzeko, eta ez da joko ELHUYARREK bere betebeharrak bete ez dituenik. Nolanahi ere, ahalegin guztiak egingo dira eten horiek ahalik eta gutxiena eragin diezaioten ERABILTZAILEARI. Eten programatuak direnean eta ahal den guztietan, aurretiaz jakinaraziko zaio ERABILTZAILEARI.

Azkenik, ELHUYARREK eskubidea du BALDINTZA OROKORRAK edo, hala badagokio, BALDINTZA BEREZIAK betetzen ez dituen edozein ERABILTZAILERI ELIA

ITZULTZAILERAKO sarbidea eta haren erabilera eteteko edo blokeatzeko, alde zuzenetik jakinarazi beharrik gabe.

7.2. Segurtasuna

ELHUYARREK inplementatuta eta eguneratuta dauzka teknikaren egoeraren arabera ELIA ITZULTZAILEAREN segurtasuna indartzeko eta prozesatzen duen informazioaren integritatea, erabilgarritasuna eta konfidentzialtasuna bermatzeko egokitzen jotzen diren neurri teknikoak.

Hala ere, ERABILTZAILERAK jakin behar du Interneteko sistema informatikoen segurtasun-neurriak ez direla erabat fidagarriak eta, beraz, ELHUYARREK ezin duela bermatu (i) ELIA ITZULTZAILEAN jasotzen diren eduki eta zerbitzuak etengabe erabilgarri egotea; (ii) eduki horietan ez izatea akatsik eta izan daitezkeen akatsak zuzentzea; (iii) ERABILTZAILERAREN sistema informatikoetan (softwarea eta hardwarea) edo haren dokumentuetan eta haietan jasotako

fitxategietan aldaketak eragin ditzaketen birusik edo bestelako elementu kaltegarriak ez egotea; eta (iv) hartutako segurtasun-neurrien hutsezintasuna.

Nolanahi ere, BALDINTZA OROKORREK berez ez dute bermerik ematen ERABILTZAILERAREN ekipamendu informatikoen edo gailu mugikorren edo ERABILTZAILERAREN azpiegituraren eta sarearen segurtasunari dagokienez, eta ERABILTZAILERARI dagokio haiek babestea.

ERABILTZAILERAK, inola ere, ez du ezabatu, aldatu, saihestu edo manipulatu behar ELIA ITZULTZAILEAN instalatuta egon daitezkeen inolako babes-gailurik edo segurtasun-sistemarik.

7.3. Bermea

ELHUYARREK ELIA ITZULTZAILEAREN funtzionamendu egokia bermatzen dio ERABILTZAILERARI baldintza hauetan:

- SOFTWAREAREN funtzionamendu egokia eta haren programazioko akatsen ondoriozko edozein gorabehera zuzenduko dela bermatzen da.

SOFTWAREAREN programazioko akatsak zuzentzeko jarduketa hori aurkitutako akatsak zuzentzeko egin beharreko aldaketetara mugatuko da.

- Nolanahi ere, berme horretatik kanpo geratzen dira (i) hirugarrenek eskaintutako zerbitzu teknologikoak (ELHUYARREN hornitzailearekin kontratatutako *cloud computing* biltegiatze-zerbitzuak edo zerbitzariak), zeinak dagozkien titularrek ezarritako baldintza eta berme-kondizioen mende egongo baitira; eta (ii) ELHUYARREK dagoeneko ERABILTZAILERAREN eskura jarritako MODALITATE EZ-PROFESIONALAREN gaineko jarduketa edo hobekuntza batek zuzendutako edozein gorabehera.
- Halaber, klausula honen xede den bermetik kanpo geratzen dira ELHUYARREK ez dagozkion arrazoiek eragindako errore eta akats guztiak. Kanpo geratzen dira, besteak beste, ERABILTZAILERAREN, BARNE-ERABILTZAILERAREN edo ELHUYARRETIK kanpoko hirugarrenen jarduketak eragindako errore edo akatsak, eta ELIA ITZULTZAILEARENAK ez diren bitartekoak —besteak beste, ERABILTZAILERAREN gailu informatikoak edo gailu mugikorrek— eragindakoak.
- ELHUYARRETIK kanpoko langileek haren baimenik gabe SOFTWAREAN egiten dituzten aldaketa guztiek automatikoki eragingo dute bermearen galera.

- ERABILTZAILEAK onartzen du ELIA ITZULTZAILEA “*dagoen moduan*” (“*as it is*”) erabiltzeko eskaintzen dela, eta, beraz, ELHUYARREK ez du bermatzen ERABILTZAILEAK bilatzen dituen helburu berezietara egokituko denik. Horren ondorioz, ELHUYARRI ezingo zaio erantzukizunik eskatu, MODALITATE EZ-PROFESIONAL bakoitzerako definitutako ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK alde batera utzita, ELIA ITZULTZAILEA ez bada egokia ERABILTZAILEAREN behar zehatzetarako.

8. JABETZA INTELEKTUALEKO ETA INDUSTRIALEKO ESKUBIDEAK ENPRESA-SEKRETUA

ELIA ITZULTZAILEAREN bidez ERABILTZAILEAREN eskura jartzen den SOFTWAREA eta gainerako aktibo, dokumentu eta informazioak, eta elementu horiei edo eratzen dituzten enpresa-sekretuei dagozkien eskubideak ELHUYARREN edo hirugarrenen titulartasunekoak dira, eta jabetza intelektualari eta industrialari edo enpresa-sekretuari buruzko Espainiako legeek eta aplikatu beharreko nazioarteko hitzarmenetako xedapenek babesten dituzte.

BALDINTZA OROKORRAK onartzeak ez du esan nahi SOFTWAREARI eta, oro har, ELIA ITZULTZAILEARI edo hartan jasotako enpresa-sekretuei dagozkien jabetza intelektualaren edo industrialaren ustiatze-eskubideak ERABILTZAILEARENGANA eskualdatzen direnik. Izan ere, ERABILTZAILEAK ERABILERA-BAIMENAREN bidez eskuratutako erabilera-baimenaren kalterik gabe, haien jabeen titulartasunekoak izaten jarraituko dute eskusiboki.

Horren ondorioz eta 4.3.3 klausulan ezarritakoarekin bat etorritik, ERABILTZAILEARENTZAT debekatuta dago SOFTWAREA deskonpilatzea, desmuntatzea, alderantzizko ingeniariatza egitea, azpilizentzia ematea eta SOFTWARETIK eta oro har ELIA ITZULTZAILETIK eratorritako obrak edozein modutan igortzea, itzultzea eta egitea.

ELIA ITZULTZAILEAN edo haren erabileran duen itxura fisikoan ELHUYARREN titulartasuneko izen komertzialen, marken, logotipoen edo bestelako ikur bereizgarrien (erregistratutakoak edo erregistratu gabeak) erreferentziak sartzeak berekin dakar ELHUYARREN berariazko baimenik gabe haiek erabiltzeko debekua.

9. DATUEN BABESA ETA COOKIEEN ERABILERA

9.1. Datu pertsonalen babesa

KONTRATUA gauzatzen den unean, hala badagokio, ERABILTZAILEAK ematen dituen datu pertsonalak eta ERABILERA-BAIMENAREN indarraldian hura egikaritzearen testuinguruan ematen dituen gainerako datuak (esate baterako, izen-abizenak, NAN-zenbakia, helbidea, posta elektronikoko kontua, etab.) bi ALDERDIEN artean ezartzen den kontratu-harremana modu egokian kudeatzeko eta gauzatzeko helburuarekin eta haren oinarri juridikoaren arabera tratatuko ditu ELHUYARREK.

ERABILTZAILEAREN EDUKIETAN edo EDUKI PROZESATUETAN ageri diren datu pertsonalei dagokienez, itzulpena amaitutakoan, ELHUYAREK datuok tratatu ahal izango ditu, tratamenduaren arduraduna den aldetik, baldin eta ERABILTZAILEAK nahita erabili badu “Baloratu itzulpenak” funtzioa, funtzio hori erabilgarri egoteko helburu bakarrez, aldi baterako eta xede horretarako beharrezkoa den bitartean, eta ERABILTZAILEAREKIN ezarritako kontratu-harremanaren oinarri juridikoa betez.

Datu pertsonal horiek ELHUYARREK bete beharreko legezko betebeharrak betetzeko jakinarazi behar dizkien entitate edo erakunde publikoei bakarrik jakinaraziko zaizkie.

Testuinguru horretan, jasotzen da beharrezkoa dela ERABILTZAILEAK, eskatzen zaizkionean, datu pertsonal horiek ematea eta dagokien entitate eta erakunde publikoei jakinaraztea kontratu-baldintza bat dela, halako moldez non datu horiek ez badira ematen edo ez badira jakinarazten ezinezkoa izango bailitzateke ERABILERA-BAIMENA ematea eta erabiltzea.

Datu pertsonal horiek gordeko dira ALDERDIEN artean ezarritako kontratua modu egokian gauzatzeko beharrezkoa den denboran, eta, beharrezkoa denean, ELHUYARREK bere legezko betebeharrak gordetzeko bete behar dituen kontserbazio-epe gehigarrietan.

ERABILTZAILEAK eskubidea izango du (i) bere datuetarako irispidea izateko, haiek zuzentzeko, ezabatzeko, haien tratamendua mugatzeko, haien eramangarritasunerako eta haiek tratatzeari uko egiteko, dagokionean; horretarako, ELHUYARRI idatzi beharko dio, hurrengo

11.1 klausulan jakinarazpenen ondorioetarako ezartzen denaren arabera; eta (ii) erreklamazio bat aurkezteko Datuak Babesteko Espainiako Agentziaren aurrean edo dagokion kontrol-agintaritzaren aurrean, bereziki, ezin izan dituztenean bete beren eskubideak.

9.2. Cookieen erabilera

WEB-SARBIDEKO PUNTUAK eta ELIA APLIKAZIOAK cookie-fitxategiak eta datuak gordetzeko eta berreskuratzeko antzeko gailuak erabiltzen dituzte.

ELHUYARREK cookie-politika bat ezarri zuen, [esteka](#) honen bidez ikus daitekeena.

ERABILTZAILEAK ELIA ITZULTZAILEA erabiltzeak berekin baldin badakar ELHUYARREK edo haren hirugarren azpikontratistek ERABILTZAILEAREN ardurapean datu pertsonalak tratatzea, bi ALDERDIEK Espainian aplikatu beharreko araudiaren arabera pribatutasunari dagokionez hurrenez hurren dituzten legezko aurreikuspenak bete beharko dituzte.

10. ERANTZUKIZUNA

ELIA ITZULTZAILEA erabiltzen duenak bere gain eta galorde erabiltzen du. ERABILTZAILEAK betebeharrak hauek ditu: (i) ELHUYARREN edo hirugarrenen irudia, interesak edo eskubideak kalte ditzakeen edo ELIA ITZULTZAILEARI kalte egin, hura baliogabetu edo gainkargatu dezakeen edo haren erabilera normala edozein modutan eragotz dezakeen ekintzarik ez egitea; eta (ii) ELIA ITZULTZAILEA legeak eta trafikoaren erabilerak erabat betez erabiltzea.

Horren ondorioz, ERABILTZAILEA izango da erantzulea ELHUYARREN edo hirugarrenen aurrean betebeharrak horiek ez betetzearen ondorioz kalte-galerarik badago.

ELHUYARREK ez du hartzen eta ez du hartuko ERABILTZAILEAREKIKO eta hirugarrenetik erantzukizunik ERABILTZAILEAK 7.3 klausulan adierazitakoaz bestela erabiltzen badu edo ez badu erabiltzen ELIA ITZULTZAILEA.

Bereziki, kasu guztiak aipatzeko asmorik gabe, ELHUYARREK ez du erantzungo ERABILTZAILEAREN edo HIRUGARRENEN aurrean arrazoi hauetatik eratorzen diren kalte-galerak gertatzen direnean: giza akatsak ERABILTZAILEAK ELIA ITZULTZAILEA erabiltzen duenean; (ii) ELHUYARREK definitutako ESPEZIFIKAZIO TEKNIKOAK bete gabe erabiltzen denean ELIA ITZULTZAILEA; eta (iii) EZINBESTEKO kasuetan edo ELHUYARREN kontrolarik kanpoko kasuetan (7.1 klausulan definitzen dira).

11. BESTE BATZUK

11.1. Jakinarazpenak

ERABILTZAILEAK ELHUYARRI egin beharreko jakinarazpenak helbide honetara zuzendu behar dira:

ELHUYAR FUNDAZIOA
Zelai Haundi 3, Osinalde Industrialdea.
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

e-mail: info@elia.eus
Telefonoa: 943363040

ELHUYAREK ERABILTZAILEARI egin beharreko jakinarazpenak WEB-SARBIDE PUNTUAREN edo ELIA APLIKAZIOAREN bidez egin beharko dira, edo, dagokionean, ERABILTZAILEAK erregistroa egiteko izapidetan adierazitako posta-helbidera eta helbide elektronikora zuzenduta.

BALDINTZA OROKORRETAN jasotzen denaren arabera ALDERDIEK elkarri egin behar dizkioten jakinarazpenak idatziz egin beharko dira, adierazitako helbideetara zuzenduta, jaso izana, bidaltze-data eta edukia egiaztatzeko aukera ematen duen edozein baliabideren bidez, posta elektronikoa ere barnean dela, baldin eta bi ALDERDIEK jakinarazpenetarako baliozko modutzat onartzen badute.

Klausula honetan jasotzen dena betez egiten diren jakinarazpenak baino ez dira izango baliozkoak eta eraginkorrak. Helbide-aldaketak ez dira eraginkor izango jakinarazten direnetik 2 egun natural igaro arte.

11.2. Klausulen independentzia

Baldin eta BALDINTZA OROKORRETAKO klausularen bat deuseza edo deusezta daitekeena bada, gainerako BALDINTZA OROKORRAK ez dira baliogabetuko; indarrean eta eraginkorrak izaten jarraituko dute.

11.3. Izenburuak

BALDINTZA OROKORRETAKO izenburuak erreferentzia gisa baino ez dira jartzen, eta ez dute mugatzen haien zentzua eta edukia.

11.4. Kontratu osoa

BALDINTZA OROKORREN aldaketak edo zuzenketak ez dira baliozkoak izango, baldin eta ez badituzte onartzen bi ALDERDIEK, aldaketaren edukia eta bi ALDERDIEK onartu dutela egiaztatzeko aukera ematen duen prozedura fisiko edo digital baten bidez.

11.5. Egunen zenbaketa

BALDINTZA OROKORRETAN jasotzen diren “egunen” aipamenak egun naturalak direla joko da, betiere berariaz kontrakoa ezartzen ez bada.

11.6. Lege aplikagarria eta jurisdikzioa

BALDINTZA OROKORRAK Espainiako ordenamendu juridikoaren mende daude.

BALDINTZA OROKORRAK direla-eta ERABILTZAILEAREN eta ELHUYARREN artean gertatzen den edozein eztabaida edo gatazka Espainiako araudiak esparru prozesalean ezartzen duena betez bideratuko da auzitegi eta epaitegietan.

ERABILTZAILEAK, betiere, Europar Batasunak auziak konpontzeko duen onlineko plataformara jotzeko eskubidea du; hona hemen esteka: <http://ec.europa.eu/consumers/odr/>.

* * *